

tzan: negafak erortzen zitzaizkidan beti, eta zein zoriona nerretzat axek izurtzean».

Gizaldi guzietan kristau sinismendunak Elizan guziak elkaturik, guziak batean, bi sailetan banaturik, abestutzeko oitura izan dute. Efi guziaren elkafekekiko abestia bezelako otoitzik ez baita: efi guzia elkartuz, andre ta gizonak, aundi ta txikiak, guziak batean oyukatzen duten abestia da otoitzik edereña, xamufena ta ukigafiena, eta beraz, Jaunari zuzendu dezaiokegun otoitzik egokiena.

Nola lortu genezake oitura eder ori gure Euskalefiko elizetan?--Elizako Anaidi ta Lagundiak eta, batez ere, gaztediak (Luistafak eta Mariaren alabak) bide ortara zuzendurik.

Bear-beafeko da gaur-egunean, Aita Santuak agintzen digun bezela, Eskoletan eta Eliz-Anaidi ta Lagundien batzafetan eliz-abestiak erakustea. ¡Zer edefagorik, Luistar Anaidien elizkizunetan bazkide guziak, anai guziak batean, Meza naiz Bezperak eta beste edozein ereserki abestutzea baño! Gaztedi osoaren abestiak, Elizako argi ta apaingafiak eta baita izlari ospetsuak baño ere jende geiago eramanaziko du eleizara. Eginkizun goragafi ta

onuragafia eliztar gaztediak bere gain artu bear lukeen lanbide au, berari beste iñori baño geiago egokitzen zaiolako,

Ar bezate, bada, apaiz jaunak eta batez ere Anaidi zuzendariak, ardura guziz Aita Santuak gogoz ta biotzez eskatzen dieten lanbide eder au.

Ez da aski, ez da naikoa gaur-egunean eliz liburua irakurtzea; Aita Santuak «abotsa» entzutea nai du, guzien «abotsa», otoitz egin eta Jauna goratzeko «abotsa» bezelakorik ez dalako.

Umeai ere Kristau ikasbideaz batean Elizako efi-abestiak erakustea nai du Aita Santuak. Gaurko umeak, biarko gaztediak, eta etziko gizonak ditugu; eta Kristau-ikasbide eta Dotriña-Sailetan eliz-abestiak orain erakutsi ezkeru, urte gutxi baño gaztedi guztiak abeslari, eta geroago, efi guzia gerturik izango da eliz-abesti polit, xamur eta goxoak oso-osoan abestutzeko.

Noiz ixango dogu zorionaldi ori? Apaiz Jaunak eta Katoliko-Gaztediak (Luistafak eta Mariaren alabak) nai dute-nean.

GARBI

ERESERKIA

*Jesukristoren
Ikuñin-pean
Batayuan gu
Giñan jari:
Ta bere ikuñin
Ofen aspian
Iraun nai degu
¡Beti-beti!*

*Alper-alpeñik
Ekingo dio
Bai, Satanas'ek
Gure aurka;
Gure Jaun eta
Jabe bakaña
Beti izango da
¡Jaungoikoa!*

*Neskutz eder Maria
Obendiyon Ama
Artu gaizuz efukiz
Zugana gatoz ba
¡Artu gaizuz zurekin!
¡Artu gaizuz, Ama!
Ta zurekin, garaitza
¡Gurea izango da!*

Tene.